

# U(R)TEKO TXOSTENA 2018

**CEA(R)** EUSKADI

Euskadiko Errefuxiatuen  
Laguntzarako Batzordea



[www.cear-euskadi.org](http://www.cear-euskadi.org)

## Nor gara?

Pertsona errefuxiatu, migratzaile eta aberrigabeen eskubideak babestu eta sustatzen dituen erakundea gara, eta, horretarako, bi jarduera-ildo nagusi ditugu: esku-hartze zuzena laguntza ematen diegun pertsonekin, eta politikan eragitea.

Errefuxiatuen Laguntzarako Espainiako Batzordea (CEAR) 1989an sortu zuten aterpe bila garai hartan gurera zetozenen egoerarekin kezkatuta zeuden hainbat pertsonen.

**1989an jarri zen martxan proiektu honen zati bat**, eta 1996an CEAR-Euskadi GKE bihurtu zen, **berezko nortasun juridikoarekin**, eta CEAR erakunde kidearekin elkarlanean jardun da harrezkero.

## Misioa, ikuspegia eta balioak

CEAR eta CEAR-Euskadi bi erakunde dira, baina misio bera dute:

**Gure misioa nazioarteko babesa behar duten edota kanporatuak izateko arriskuan dauden errefuxiatuen, lekualdatuen, aberrigabeen eta etorkinen giza eskubideak eta garapen osoa babestea eta sustatzea da.**

CEAR-Euskadi erakundearen giza lantaldea soldatapeko langilez (42), bazkidez (171) eta boluntarioz (63) osaturik dago. Gainera, Euskadin CEARreko 85 lagunek estatu mailako programak kudeatzen lan egiten dute.



CEAR-Euskadiko  
Parte-hartze Sozialeko  
urteko topaketa

Erakundea osatzen duten langile ordaindunen eta boluntarioen giza taldeak ikuspegi bera du:



CEAR-Euskadi aldaketarako eta eraldaketarako eragile gisa finkatu da. Diskriminaziorik gabeko gizarte iraunkor eta justu bat lortzea du helburu, aukeraberdintasunean eta nortasun indibidual zein kolektiboarekiko errespetuan oinarritutakoa, eta, horretarako, integrazio-, gizarte-, kultura-, lan- eta politika-prozesuak lantzen ditu, intereseko beste hainbat talderekin sarean arituz.



Hauek dira erakunde gisa ditugun **balioak**:

- Konpromiso etikoa
- Eraginkortasuna
  - Efizientzia
  - Zaintza
- Independentzia
  - Parte-hartzea
  - Gardentasuna
    - Konfiantza
- Aktibismoa/inplikazioa/konpromisoa

## Sarean lan egitea

Garapenerako Lankidetzarako Euskal Kontseilua

Euskadiko Etorकिन Laguntzarako GKE-en Koordinakundea (Harresiak Apurtuz)

Errefuxiatuei harrera egiteko Erakunde-arte-ko Batzorde Soziala

EAPN – Euskadi

Ecosistema

ERABEREAN. Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako sarea

Boluntariotza Foroa

Gizardatz

Emakume eta neskatuen salerosketa eta sexu-esplotazioaren aurkako koordinazio-mahaia

Hemen Programa

BESTEBI Plataforma

Gasteizen alokairuko etxebizitza bila dabil-  
zanen diskriminazioaren aurkako plataforma

Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez  
berriz kokatzeko plataforma globala

Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia Plataforma

Etxeko Zerbitzuen Plataforma

Somos Diversxs Plataforma

Arabako Tipi-Tapa Gaztelania Sarea

Emakume Defendatzaileen Sarea

SareakJosten/Tejiendo Redes

ZAS. Red vasca antirumores

## Ekitatearen Aldeko Plana

CEAR-Euskadin uste dugu erakundeak ez direla neutroak genero-kontuetan, gizartean indarrean dauden balioek, indar-egitura nagusiek eta emakumeak menperatzen dituen desberdintasunean oinarritutako sistema patriarkalak baldintzatzen baitituzte.

Horregatik, Ekitatearen Aldeko Ekintza Plan bat dugu, Plan-gintza Estrategikoaren barruan, eta Emakunderen erakunde laguntzaile gisa gure konpromisoa berritu dugu, bosgarren urtez jarraian.

Berdintasuneko Batzorde bat ere badugu, erakundeko sail desberdinetako langileek osatua; hain zuzen, batzorde hori da plana gauzatzeko ardura duena. Jarduera zehatzen adibide, nabarmentzekoak dira, besteak beste, 2018ko martxoan zaintzei buruz egin zen jardunaldia eta Sexu Jazarpenaren eta Jazarpen Sexistaren Aurka Jarduteko Protokoloa.



Zaintzei buruzko topaketaren kontakizun grafikoa



## Metodologia

CEAR-Euskadin **Plan Estrategikoa** bat dugu, erakundearen 6 xede nagusi hauek definitzen dituena:

- Pertsona etorkin/immigrante, errefuxiatu eta aberrigabeen garapen osoa.
- Beren eskubideen defentsa, nazioarteko babesa eta kulturen arteko elkarbizitzaren sustapena.
- Prozesuen bidezko kudeaketaren finkapena.
- Taldearen garapen pertsonala eta profesionala.
- Baliabide ekonomikoaren kudeaketa eraginkorra eta iraunkorra.
- Ekitatearen sustapena erakundearen bizitzan eta ekintzetan.

## 2018ko mugarri nagusiak

### Harrera

2018an abian jarri da, azkenik, CEAR-Euskadiko harrera sailak aspalditik irrikatzen eta bultzatzen zuen asmo handiko proiektuetako bat. **Gipuzkoako Oñatin Larraña Etxea** zabaldu da, errefuxiatu eta etorkinei harrera egiteko. Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren finantzaketarekin zabaldu da zentroa. Asiloa eskatu eta estatuko harrera-sistemak eskaintzen dituen plazetan sartu zain dauden pertsonen arreta emateko sortu da zentro hau. Zenbaitetan, eskatzaileek hilabeteak itxaron behar izaten dituzte plaza horren zain, eta, bitarte horretan, ez dute egoitzarik edo bizitzeko lekurik.

Horren adierazle, 2018an, estatuko harrera-sisteman asiloa eskatu zuten pertsonen 1.322 eskabide kudeatu genituen Euskadiko gure bulegoan (764

Oñatiko Lehen Harrerako  
"Larraña Etxea" zentroan  
dauden pertsonak.





gizonezko / 558 emakumezko). Asilo eskatzaileak ugaritu egin dira, asiloko elkarrizketa egiteko hilabeteak itxaron behar dira, eta plaza esleitzeko itxaronaldia ere luzea da. Horren guztiaren ondorioz, 2018ko erdialdetik aurrera, harrerako aterpeetan ez zen errotaziorik izan eta gainezka egin zuen egoerak.

Larraña Etxea egoera hori arintzeko helburuarekin sortu da, eta udaletxe, mugimendu sozial eta herriko bizilagunen arteko bizikidetzaren eta lan koordinatuaren eredu argia izan da ekimena.

Era berean, estatuko harrera-sistemak ez ditu aurreikusten nazioarteko zenbait babes eskaera, eta pertsona horien egoerari erantzuteko, **Harrera** programa indartzeko lanean aritu da CEAR-Euskadi. 2019. urte hasieratik bikoiztu egin dira programa horretan eskainitako plazak.

### Gizarteratzea

2018. urtean, esku hartzeko taldeak 1.356 esku-hartze egin ditu guztira gizarte eta lan arloko gaietan.

**Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatutako Goihabe Programan** 149 pertsonari eman diegu laguntza. Hau xe da programa horren helburua: Bizkaian bizi eta nazioarteko babesa eskatu zein lortu duten pertsonen integratzen laguntzea, ezohiko moduan eta arrazoi humanitarioak direla-eta.

### Etxebizitza

Etxebizitzarekin loturiko gaietan **433 esku-hartze** egin ditugu. Pertsonak oraindik ere zailtasun handiak dituzte bizilekua aurkitzeko, batez ere arrazoi hauek direla medio:

- Alokairuaren prezioa garestitu egin da, bai banakako gelena bai pisuena. Horren ondorioz, bizileku premian direnek oso garesti alokatu behar dituzte pisuak, bizigarritasun-baldintza oso txarretan edo oso urrun dauden udalerrietan.

- Etxebizitza duin bat eskuratzeko betekizunak betetzea ezinezkoa da. Kasu askotan, bazterketa bilaketan bertan gertatzen da. Higiezinen agentziek abalak, mugagabeko kontratuak, aparteko aseguruak, kudeaketa-gastuak, etab. eskatzen dituzte. Baldintza horiek guztiak direla medio, askok eta askok ezin dute bizileku bat eskuratu.

## Lana

Bigarren urtez jarraian, **CEAR-Euskadik eta ner-group** taldeak lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten **errefuxiatuen laneratzea errazteko eta laguntzeko helburuarekin**.

2017an "Conéctate Ner" programa gauzatu zen, eta talde horretako korporazio-boluntarioek hainbat tailer eman zizkieten errefuxiatu, etorkin eta aberrigabeek osatutako taldeei. Tailer horien helburua pertsona horien **gaitasunak eta baliabideak hobetzea zen lana bilatu ahal izateko**: enplegua bilatzeko zer atari dau-

den eta horiek nola erabiltzen diren erakutsi, lan-elkarrizketak prestatzen irakatsi,

lan-merkatuaren ezaugarriak

zein diren ezagutarazi,

eta abar. Bigarren edizio honetan, **aholku-**

**lari-tza zerbitzu bat ere eskaini zuen** pro-

gramak. Gurera eto-

rritakoei harrera ona

egiten eta gizartean

nahiz lan-munduan

sartzen laguntzea da

azken xedea; horixe

lortu nahi da.



Responsables de CEAR-Euskadi y ner-group en la firma del convenio entre ambas entidades.

## Atzerritartasuna

2018an, **atzerritar-izaera aitor dakien eskatzen duten 707 pertsonari** eman diegu laguntza; horietatik 386 lehen aldiz iritsi dira gurera.

Muturreko zaugarritasun-egoeran dauden pertsonari eskaintzen diegu laguntza, baina ezin diegu behar duten premiazko erantzun hori eman. Inolako diru-baliabiderik ez duten familiak, kalean bizi diren 18 eta 23 urte arteko gazteak, osasun-arazo larriak dituzten pertsonak, erroldak ezartzen dituen baldintzak betetzen ez dituztenak eta abar dira eskatzaileak.

## Hemen programa

2018an **286 gaztek** jaso zuten gure arreta, horietatik 124k plaza egonkorra hartu zuten programan eta beste 162 lagunek bestelako esku-hartzeren bat izan zuten: informazioa, orientazioa eta jarraipena, etab. CEAR-Euskadiko zerbitzu juridikoen, orobat, 31 atzerritartasun-espeditu izapidetu dituzte.

HEMEN Programaren bidez lanean jarraitzen dugu Bizkaiko Foru Aldundiaren adingabeen babes-zentroetatik irtendako gazte etorkinei bidelaguntza ematen eta haien integrazio-ibilbideak garatzen.

Bidaidetik gabeko adingabeen etorrera nabarmen handitu da azken bi urteotan. 2018. urte osoan, gurera bideratutako kasuen kopurua hazi egin da etengabe. Horren ondorioz, 2017ko irailetik hona gazte iritsi berriak itxaron-zerrendara igarotzen dira, harik eta programaren bidez haien bizileku-premiei erantzuna emateko modua izaten den arte. Egoera honek kezka handia sortzen du erakundeetan; izan ere, erabat babesik gabe eta zaugarritasun-egoera berezian dauden pertsonak dira.



Mamdou Sow da argazkikoa, Hemen Programako partaideetako bat. ETBk programari buruz eginiko saiotik ateratakoa da irudia.

## Laguntza juridikoa

**1.595 lagunek eskatu zuten asiloa Euskal Autonomia Erkidegoan 2018an: 973 lagunek Bizkaian, 385ek Araban eta 237k Gipuzkoan.**

EAEen eginiko eskabide horietatik guztietatik, CEAR-Euskadi erakundeak **974 pertsonari (%61) eman zien laguntza**; 478 emakumezko eta 496 gizonezko. Herrialdeka, Venezuela izan zen, berriro ere, CEAR-Euskadik lagundutako eskabideen jatorri nagusia (%34), eta ondoren Kolonbia (%8) eta Honduras (%4,7).

2018an, CEAR-Euskadiko zerbitzu juridikoak 8 pertsonarentzat lortu zuen errefuxiatu-estatusa, 10 lagunentzat babes subsidiarioa, 4 familia-luzapen eta 3 lagunentzat aberrigabe-estatusa.

## Aholku Sarea

Gasteizen gauzatutako atzerriartasun-programaren barruan, **776 kontsulta egin dituzte 608 pertsonak** (318 emakume eta 290 gizon), atzeritarrei buruzko legediarekin lotutako gaiez, batez ere honako hauek direla eta: Bizileku-baimenak ohiz kanpoko egoerengatik, familia biltzea, lan-baimenak, bizileku-baimena eta horren berritzea, EBko bizileku-txartelak, herritartasuna eta administrazio-baliabideak, besteak beste.

## Arreta psikologikoa

2018an, arreta psikologikoko zerbitzuak, 4 pertsonen osatutako lantaldearen bidez, **asiloa eskatu duten edo asilo-egoeran dauden 245 pertsonari eman zien arreta, bai eta atzeritarren kolektiboko 11 pertsonari ere.**

Aldi horretan egin diren jardueren artean, banakako arretaz gain, hiru azpimarratuko ditugu.

Alde batetik, taldekako tailerrak egin dira hainbat ildotan:

**Osasun integralerako tailerrak:** Tailer horietan taldea osatzen duten pertsonen indargune eta beharren autodiagnostiko txiki bat egiten da, osasunaren hainbat dimentsio aintzat hartuta. Horrekin batera, bizitzen ari diren bizi-prozesuei buruzko informazioa ematen zaie (normalizazioari eta prebentzioari begira), bai eta agerian jarritako beharrei erantzuteko egon daitezkeen tokiko baliabideei buruzkoa ere. Azkenik, arreta psikologikoko zerbitzuak zertarako balio duen eta zer-nolako kasuetan erabil daitezkeen jakinarazten zaie.

**Loaren higieneari buruzko tailerrak:** Tailer horietan helburua da loaren garrantziari buruzko kontzientzia sortzea, eta loa hobetzeko aukerez ohartaraztea, bitarteko hauek baliatuta: loaren funtsezko alderdiei buruzko informazioa, norberaren lo egiteko moduen eta "ondo lo egiteko" baliabideen behaketa, eta kontrol mentaleko zenbait teknika erabiltzea eta arreta oraingo unean jartzea, lo egitera joateko eta jaikitzeke uneak hobetzen laguntzeko.



23 urteko asilo-eskatzailea. Maliko mendebaldetik ihes egin behar izan du, indarkeriaren eta babes-ezaren ondorioz. 2018an iritsi zen eta CEAREk Malagan duen Migrazio Zentroan bizi da.  
© ACNUR / Markel Redondo.

## Mapa de salud integral

Gozar de buena salud no significa solamente no tener ninguna enfermedad física. La salud holística o salud integral hace referencia a la búsqueda de un equilibrio entre diferentes aspectos de nuestra vida que están relacionados, entre sí: lo físico, lo mental, lo emocional, lo relacional, lo espiritual, lo social y lo comunitario.



Existen diferentes aspectos que influyen en nuestra salud y para todos ellos hay algo que podemos hacer.

¿Dónde podemos recurrir? Si quieres saber más consulta nuestro listado de recursos:

[www.cear-i.org/informacion-salud.pdf](http://www.cear-i.org/informacion-salud.pdf)

Seguro que se están haciendo de, al menos, algunos aspectos de la salud, ya que tenemos una inteligencia interior que de forma natural sabe lo que necesitamos y nos lleva a buscar nuestro bienestar. Pero a veces nos puede pasar que no sabemos que tenemos estas herramientas y necesitamos apoyo para descubrirlos y desarrollarlos a partir de ellos. Busca los recursos que nos permitan explorar nuestro potencial. Para estos momentos es un función del espíritu a mejorar.

CEAR*i*

bbk

**Berariaz diseinatutako tailerrak:** Harrera egin zaien pertsonen artean ondoez psikologiko handia sortzen ari dira azken aldian beste gai batzuk, eta behar horiei erantzuteko zenbait tailer egin dira: besteak beste, “*Dolua lantzeko gunea*”, “*Etxebizitzaren bilaketan sortutako estresa kudeatzeko tailerra*” eta “*Aldaketak eta estresa kudeatzeko tailerra*”.

Parte hartzeko tailerrak dira, eta aipatu helburuak lantzeaz gainera, zeharka, beste balio eta faktore batzuk ere sustatzen dira, hala nola taldearen kohesioa, konfiantza eta segurtasuna, bai eta pertsonen arteko harremanak ere.

Bestalde, 2018an sendotuz joan da urtebete lehenago (2017) martxan jarritako **Bizkaiko Sare Psiko-solidarioa**. Sare horren bidez, psikologiako profesionalek laguntza psikologikoa ematen diete kolektiboko pertsonei, boluntario moduan eta elkartasunez, zerbitzuan itxaron zerrenda sortzen den uneetan.

Azkenik, psikologia-arloko gizarte-berrikuntzaren ildoan, eta **Kula Sarea**-ren babesean, lanean jarraitu dugu Bizkaian **Osasun Integralerako Mapa** bat ikertzeko eta garatzeko. Mapa horretan jasotzen dira osasun

nean eragiten duten hainbat alderdi, bai eta kolektiboan gai horri buruz sor daitezkeen premiei erantzuteko eskura dauden baliabideak ere. Araban ere hasi gara Osasun Integralerako Mapa hori hezurmamitzen.

## Eragina

### Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa

#### Giza eskubideak behatzeko misioa Kolonbian

2018ko urtarrilean, Euskal Ordezkaritza batek Kolonbia bisitatu zuen, Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez Babesteko Euskal Programan harreran hartutako pertsonak beren herrialdera itzuli ondoren, haien segimendua egiteko jardueren testuinguruan. Ordezkaritza hartan ziren Eusko Jaurlaritzako ordezkariak (Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia), Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko kideak eta giza eskubideen aldeko erakundeak (Mugarik Gabe eta CEAR-Euskadi).

2017ko edizioan, Programak giza eskubideen aldeko hiru pertsonari egin zien harrera Euskadin; haietako bat, OIAko kidea zen (Antiokiako Erakunde Indigena).

Euskal Ordezkaritzak agenda betea izan zuen, bilera eta topaketa ugari Kolonbiako giza eskubideen aldeko erakundeekin, gizarte mugimenduekin eta instituzioekin, nazioarteko erakundeekin eta kidego diplomatikoekin, eta egiaztatu zuen erakundeek eta kolektiboek mehatxu eta jazarpen larriak jasaten dituztela herrialde hartan giza eskubideen



alde egiten duten lanagatik, eta egoera bereziki larria dela lurra eta lurraldea defendatzen duten komunitate indigenen kasuan.

## **Hondurastik eta Kolonbiatik etorritako giza eskubideen aldeko bi ekintzaileri eginiko harrera.**

2018an, giza eskubideen defentsan lan egiteagatik arrisku-egoeran zeuden bi pertsona etorri ziren Euskadira, Babesa emateko Euskal Programaren esparruan:

**Nohemí Esther Pérez Borjas, Hondurasko atxilotuen eta desagertuen senideen batzordeko kidea (COFADEH)** eta **Danelly Estupiñán Valencia, soziologoa, Komunitate Beltzen Prozesuko (PCN) kidea** Buena-ventura herrian (Kolonbia).

Mundubat eta Emigrad@s sin Fronteras erakundeen eskutik, bi ekintzaileek agenda politiko bati jarraituz hainbat hitzaldi eman zituzten Euskadin, Espainian eta Europan, eta, horri esker, nazioarteko babes-sareak zabaldu eta sendotu ahal izan zituzten, beren lurraldeetan giza eskubideen aldeko lanari berriro heltzeko, segurtasun eta babes handiagoarekin.

Bideo batean jaso ziren ekintzaileen kezkak, iritziak eta adierazpenak: norberaren herrialdeko egoera zein den, beren borroka kolektiboak, itzuleran zer amets dituzten eta Programan parte hartzeko esperientzia zer izan den: <https://www.youtube.com/watch?v=TVM8ABLxwVE&t=1s>



Defendatzaileen lekukotza jasotzen duen bideoaren fotograma





## Defendatzaileak babestea

2018an lanean jarraitu dugu euskal eragileak sendotzeko bidean, giza eskubideen defendatzaileak babesteko zeregin horretan jarrai dezaten. **Euskadiko GGKE-en Koordinakundearekin eta Nazioarteko Bake Brigadekin** elkarlanean, EAeko GGKE-ei, erakundeei eta gizarte-mugimenduei zuzendutako prestakuntza antolatu genuen; 60 lagunek hartu zuten parte ekimenean. Giza eskubideen alde egiten duten lanagatik arriskuan bizi diren pertsonen babeserako euskal eragile sozialek bete dezaketen lanari buruzko baliabide eta tresnak aztertu ziren prestakuntza horretan. Era berean, arlo honetan beste bi tresna ere eman ditugu argitara 2018an: Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babes-premiei buruzko diagnostikoa, batetik, eta pertsona horien babeserako dauden mekanismoei buruzko informazioa jasotzen duen webgune bat, bestetik. Webgunean jasotzen diren mekanismoen artean daude defendatzaileak aldi batez berriz kokatzeko programak, babes iraunkorrekoak, prestakuntza, nazioarteko eta eskualde mailako araudi eta mekanismoak eta defendatzaileei laguntzen diharduten erakundeen zerrenda.

Esteka honetan dago prozesuari buruzko informazio guztia: <https://defensoras.cear-euskadi.org/>

## #Bizitzeko ihes egin #Emakume errefuxiatuak dira kanpaina

Maiatzean abiarazi genuen **Bizitzeko ihes egin. Emakume errefuxiatuak dira** kanpaina, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren edo izan diren emakumeak errefuxiatuak direla ikusarazteko, eta egoera hori mugak ixtearekin eta militarizatzearekin estu loturik dagoela salatzeke. Kanpainan eginiko ekintzen artean, microsite bat sortu genuen, spot bat egin, kanpainaren berri eman genuen gizarte-sareetan eta komunikabideetan, eta dekalogo bat prestatu hedabideei zuzenduta. Horrez gain, tresna digital bat sortu genuen Clara, Sara eta Jeanneren benetako istorioak azaltzeko. **Bizirik nago. Saharaz hegoaldeko Afrikatik iritsitako emakumeen erresistentzia-kartografiak** lanean oinarriturik dago baliabide digital hori.

Azaroan, genero arrazoiak direla medio emakumeek jasaten duten jazarpenari buruz sentsibilizatzeko hainbat jarduera egin genituen, Bizkaiko Emakumeen Ahalduntze Eskolekin elkarlanean. Zehazki, Ipuin kontalarien saioak egin ziren Ondarroan eta Ermuan, Saharaz hegoaldeko emakume errefuxiatuei buruz;



Basaurin eta Getxon, berriz, Saharaz hegoalde-  
tik bizirik atera eta Euskadin errefuxiatuta  
dauden bi emakumerekin hizketaldiak izan ziren.

Aipatutakoez gain, sexu-esplotaziorako salerosketa-  
ren biktima izan diren edo ihes egin eta bizirik atera diren  
emakume eta neskatilei Euskadin babes emateko jarduera  
instituzionalari buruzko ikerketa baten lehen urratsak eman ziren  
2018an. Ikerketa horren helburu behinena hauxe izango da: emaku-  
me eta neskatila horientzat nazioarteko babesaren onarpena lortzeko  
zer hobetu daitekeen eta horretarako zer egin daitekeen identifikatzea.

## Komunikazioa

### Ekainaren 20ko prentsaurrekoa

Urtero bezala, ekainaren 20an, **Errefuxiatuen Nazioarteko Egunaren** harian, CEAR-Euskadik hedabideen  
aurrean aurkeztu zuen urteroko txostena: **“Errefuxiatuak  
Espainian eta Europan”**. Prentsaurreko horretan, aurre-  
ko urtean (2017) nazioarteko babesari buruzko Euskadi-  
ko datuak aurkeztu zituen eta eskabidea egin duten na-  
zionalitate nagusiak zein izan ziren ere jakinarazi zuen.

Gure estimazioen arabera, 2017an 970 lagunek eskatu  
zuten asiloa EAEn (592 pertsonak Bizkaiak, 258k Ara-  
ban eta 121ek Gipuzkoan). 2016ko datuekin alderatu-  
ta, beraz, bikoiztu egin zen asilo-eskatzailleen kopurua  
(2016an 500 izan ziren).



EAEEn 2017an izapidetutako asilo-eskabideen %70 ingurutan CEAR-Euskadi izan zen bidelagun; horrenbestez, datu ofizialen faltan, erakundeak urte horretan artatutako pertsonen datuak aski argigarriak dira EAEEn asiloa eskatzen duten pertsonen soslaia osatzeko. Erakundeak artatutako pertsonen ia %60 hiru herrialdetatik dator: Venezuela (%40,33), Kolonbia (%9,52) eta Ukrainatik (%8,16), hain zuzen; %46 emakumea da eta %54 gizona.

### “Erbeste izan ginen; izan gaitezen babes” kanpaina


2018ko azaroan, “**Erbeste izan ginen; izan gaitezen babes**” kanpaina jarri genuen abian; “**Made By NiKa**” diseinu digitaleko enpresaren lankidetzak izan genuen ekimen horretan. Kanpainaren helburua zen errefuxiatuei harrera egiteko herri gisa dugun ardura aldarrikatzea, gogoan izanda Gerra Zibilean eta gerraren ondoren beste herrialde batzuek euskal erbesteratuak ere hartu zituztela.

Kanpainak hiru alderdi uztartu zituen: sentsibilizazioa, komunikazioa eta funtsak biltzea. “**Oparitu babesa**” goiburutzat zuten Gabonetako posta-txartel solidarioak oparitzea zen kanpainaren proposamena.

## Parte-hartze soziala


### Bilbao Refugio lasterketa

**Bilbao Refugio** herri lasterketak 400 pertsona bildu zituen bigarren edizioan. “**Errefuxiatuen alde korrika**” goiburua aldarri hartuta, lasterkari horiek guztiek babesa eman nahi izan zieten errefuxiatuei. Proba jai-giroan egin zen, eta erakundetako hainbat ordezkari izan ziren partaide. Laguntzaile eta babesleen artean, berriz, kultura eta kirol munduko hainbat ordezkari ere bildu ziren, hala nola Ramón Barea eta Jon Plazaola aktoreak, eta Ana Urrutia aurkezlea.



## Sareak Ehuntzen, Donostian

Gipuzkoan errefuxiatuentzako babesgune seguru bat sortzeko helburuarekin, asiloa eskatua zuten emakume talde bat elkartu zen Donostian irailean, **lanaterapiaren** bidez elkarrekin eta elkarren artean harremanak ehuntzeko. Pertsona gisa hazteko eta ahaldunezko gune bat sortzea zen helburua, neguko janzkiak ehuntzen zituzten bitartean pertsonen arteko eta pertsonaren baitako prozesu eta aliantzak eta harremanak ere josteko.



## “Alas Rotas”, Caminamos para Crecer konpainiaren bigarren antzezlanaren estreinaldia

“**Alas Rotas**” antzezlanaren estreinatua izan zen iaz “**Caminamos Para Crecer**” kulturarteko antzerki taldeak; CEAR-Euskadiko boluntarioek sortutako talde horrek zuzendu eta antzeztutako bigarren lana. Ekainean egin zuten estreinako emanaldia Bilboko Campos Elíseos antzokian, aretoa erabat beteta, eta azaroan beste emanaldi bat egin zuten Bilbo Rock-en, **Fair Saturday** jardunaldian. Azaroko ekitaldi horretan bildutako dirua CEAR-Euskadiren esku jarri zuten antzerki taldeak.

## Parte-hartze sozialeko topaketa

Azaroan egin zen erakunde osoaren parte-hartze sozialeko ohiko topaketa. Soldatapeko langileak, boluntarioak eta

erabiltzaileak elkartzen dira hitzordu horretan, norberaren esperientziak eta ezaguerak partekatzeko, eta erakunde gisa norantz goazen guztiok elkarrekin gogoeta egiteko.

### Parte-hartze sozialeko jarduera gehiago

- Martxoaren 21ean, Bilbon, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako manifestazioan parte hartu genuen.
- Bilbon eta Gasteizen, Arnasten aisialdiko taldea sendotu dugu.
- Gasteizen Udalak utzitako baratze batean sasoian sasoiko produktuak ereiten dituen talde bat sendotu dugu. Errefuxiatuen integrazioan laguntzea da talde eta ekimen horren xedea.
- **BBK Liveko Play´n Kids** haur jaialdian parte hartu genuen, eta **“Jumbol, el Limaco Amarillo”** ipuinean oinarritutako haurrentzako obra estreinatuta genuen.



## Kulturen arteko bizikidetza

### Diskurtso politiko xenofoboak eta gorrotoaren aurkako diskurtsoak

2018an eman zen argitara **“Herritarrek diskurtso politiko eta xenofoboaren aurka. Suteen aurkako gida”**. Diskurtso politiko xenofoboaren eta gorrotoa sustatzen duten diskurtsoen aurka erantzuteko herritarren eskura zenbait baliabide eta tresna jartzea zen argitalpen horren helburua. Zuzenbide eta justizia, erakunde, politika, hedabide, elkarte eta herritarren esparruekin lotura duten 19 tresna eskaintzen dira.

Hauek dira tresna horietako batzuen adibideak: auzitan jardute estrategikoa, salaketa herri ekintza gisa, alderdi politiko bakoitzaren batzorde etikoen aurreko erreklamazioa, prentsan zuzendariari idatzitako eskutitzak diskurtso erasokorren aurrean kontrako kontakizunak aurkezteko, edota adierazpen arrazista eta xenofoboaren biktimak diren komunitateak gorrotoaren aurrean babesteko elkartu diren herritarren plataformen bidezko mobilizazio sozialak. Esteka honetan dago eskura argitalpena: [https://www.cear-euskadi.org/wp-content/uploads/2018/05/guia\\_contra\\_incendios\\_cast.pdf](https://www.cear-euskadi.org/wp-content/uploads/2018/05/guia_contra_incendios_cast.pdf)

Arabako eta Bizkaiko Suhiltzaile Parkeetan egin zen gidaren jendaurreko aurkezpena.

### Zurumurruen aurkako estrategia, mobilizazio sozialaren bidez

CEAR Euskadik, Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Zurumurruen aurkako Estrategia deritzona dinamizatu du lurralde horretan 2018an, Kulturarteko Hirien Europako Sarearen (RECI) metodologiari jarraituz. Metodologia horren funtsa da herritarren artean zurumurruen aurkako eragileen sa-



Gidaren aurkezpena Miribillako Suhiltzaile parkean.

reak deitzea eta biltzea, eta, ondoren, eragile horiek eragile gehiagori deialdia egin diezaien sustatzea, “elur-pilota” dinamiken bidez.

Sare horiek dinamizatzeko, CEAR Euskadik zurrumurruek aurkako hainbat ekintza antolatu ditu urtean zehar: antzezlanak, hitzaldiak, gune publikoetan esku hartzeko kale-ekintzak, tailerrak eta abar. Era berean, ekintza horien osagarri, gure erakundea elkarlanean aritu da Gasteizen zurrumurruek aurkako sarearekin. Komunitatean esku-hartzeko hainbat jardueratan eta hainbat kolektiborekin aritzen gara lanean, eta, hain zuzen, kolektibo horien mobilizazio sozialean oinarritzen da Gasteizko sare hori, eta modu autogestionatuan aritzen da.



## Bizilagunak

Azaroaren 11n, “Bizilagunak” kulturarteko otorduak dinamizatu zituen CEAR-Euskadik Arabako hainbat herritan eta hiriburuan: Araiialdea, Mendialdea, Lautada, Arabako Errioxa eta Añanako Koadriletako 11 herritan eta Gasteizen bertan, zehazki. Ekimen honen 5. urtea izan zen jarraian, eta otorduetan **58 nazionalitatetako 1.311 pertsona bildu ziren**, etxeetan edo txokoetan, arrazakeria edo xenofobia kutsuko gezur eta zurrumurruek ez dituztela sinesten argi eta garbi adierazteko.

Ekimen horretako partaideak berriro bildu ziren abenduaren 1ean, Jesús Ibañez de Matauco antzokian antolatutako ospakizunean. Elh Malick artista senegaldarraren eta Soul Wild taldearen emanaldiak izan ziren ekitaldi hartan. Bi talde horien musikaren bidez aldarrikatu nahi izan zen zurrumurru xenofoboak zarata desatsegina besterik ez direla, eta zarata horrek ez digula uzten elkar entzuten. Zarata horrek ezinezko bihurtzen du bizikidetzeta eta komunikazioa. Eta Bizilagunak izateak, aldiz, isilarazi egiten du. Hain zuzen, hauxe izan zen ekitaldiaren goiburua, gaztelaniaz: **“No nos dejamos enRuidar”** (Guri zaratak ez digu eragiten).

Urtero bezala aurten ere, CEAR-Euskadik **bere kontabilitateari kontu-ikuskaritza egin diezaiotela eskatu du**, bere borondatez; **lan hori PKF ATTEST Servicios Empresariales SL enpresak egin du, eta aldekoa izan da**. Kontuek zehatz-mehatz adierazten dute nolakoa zen CEAR-Euskadiren egoera 20118ko abenduaren 31n, ondasunei eta finantzei dagokienez.

## CEAR-EUSKADI ELKARTEA (ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO EUSKADIKO BATZORDEA) BALANTZE LABURTUAK, 2018KO ETA 2017KO ABENDUAREN 31N

AKTIBOA	2018	2017
<b>AKTIBO EZ-ARRUNTA</b>		
Ibilgetu ukiezina	4.041	5.335
Ibilgetu materiala	120.794	3.097
Epe luzerako finantza-inbertsioak	229	1.129
<b>Aktibo ez-arrunta guztira</b>	<b>125.064</b>	<b>9.561</b>
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		
Izakinak	1.063	1.363
Geure jardueraren erabiltzaileak eta beste zordun batzuk	24.109	30.100
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk		
Beste zordun batzuk	671.251	742.392
Epe laburrerako finantza-inbertsioak	2.874	4.327
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	376.284	311.769
<b>Aktibo arrunta guztira</b>	<b>1.075.581</b>	<b>1.089.951</b>
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.200.645</b>	<b>1.099.512</b>




CEAR-EUSKADI ELKARTEA (ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO EUSKADIKO BATZORDEA)  
BALANTZE LABURTUAK, 2018KO ETA 2017KO ABENDUAREN 31N

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2018	2017
<b>ONDARE GARBIA:</b>		
<b>Geure funtsak</b>		
Funts soziala	213.418	213.418
Aurreko ekitaldien soberakin negatiboak	(46.934)	(47.148)
Ekitaldiko soberakina	23.212	214
Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	117.686	
<b>Ondare garbia guztira</b>	<b>307.382</b>	<b>166.484</b>
<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		
<b>Epe luzerako zorrak (18. oharra)</b>		
Epe luzerako beste zor batzuk	166.984	178.834
<b>Pasibo ez-arrunta guztira</b>	<b>166.984</b>	<b>178.834</b>
<b>PASIBO ARRUNTA</b>		
<b>Epe laburrerako zorrak</b>		
Epe laburrerako beste zor batzuk	530.654	622.900
<b>Merkataritzako hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk</b>		
Beste hartzekodun batzuk	195.625	131.294
<b>Pasibo arrunta guztira</b>	<b>726.279</b>	<b>754.194</b>
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>1.200.645</b>	<b>1.099.512</b>

## CEAR-EUSKADI ELKARTEA (ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO EUSKADIKO BATZORDEA) EMAITZEN KONTU LABURTUAK, 2018KO ETA 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIEI DAGOZKIENAK

	2018	2017
<b>EKITALDIKO SOBERAKINA</b>		
Geure jardueraren diru-sarrerak		
Bazkideen eta afiliatuen kuotak	28.325	24.906
Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak, ekitaldiaren soberakinari egotziak	962.148	775.962
	990.473	800.868
Salmentak eta merkataritza-jardueraren beste diru-sarrera batzuk	193.906	224.251
Laguntzengatiko eta bestelako gastuak		
Dirulaguntzak	(82.836)	(83.770)
Produktu bukatuen eta fabrikazioan dauden izakinen aldakuntza	(300)	(566)
Hornidurak		
Jardueraren beste diru-sarrera batzuk	5.677	12.614
Langileen gastuak	(708.392)	(604.157)
Jardueraren beste gastu batzuk	(372.507)	(310.346)
Ibilgetuaren amortizazioa	(2.660)	(2.685)
Beste emaitza batzuk	(149)	5
<b>JARDUERAREN SOBERAKINA</b>	<b>23.212</b>	<b>214</b>
<b>SOBERAKINA ZERGEN AURRETIK</b>	<b>23.212</b>	<b>214</b>
Irabazien gaineko zergak		
Ekitaldiaren soberakinean aitortutako ondare garbiaren aldakuntza	23.212	214
<b>EMAITZA OSOA, EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA</b>	<b>23.212</b>	<b>214</b>


## SARRERAK



- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
- Bazkide-kuotak, dohaintzak, ekitaldiak
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Fundazio pribatuak
- Eusko Jaurlaritza
- Beste erakunde publiko batzuk
- Beste batzuk

## GASTUAK

- Barne-kudeaketa
- EPS
- Esku-hartzea



## Finantzatzaileak



## Laguntzaileak



# ASTIBERRI



## Fair Saturday



## MADE BY NIKA



## OÑATI

dabilen herria

[ Eskaneatu kodea zure mugikorrarekin eta egin CEAR-Euskadiko bazkide ]



Errefuxiatuen eskubideak defendatzeko lagundu gaitzazu.



**Bilbo**

Kristo kalea, 9 B, 5 solairua.  
48007 - Bilbo  
Tel: 94 424 88 44

**Vitoria-Gasteiz**

Aldabe kalea, 7.  
01012 - Vitoria - Gasteiz  
Tel: 945 266 805

**Donostia**

Amezketarrak Kalea, 3.  
20010 - Donostia

**CEAR** EUSKADI

Euskadiko Errefuxiatuen  
Laguntzarako Batzordea

[www.cear-euskadi.org](http://www.cear-euskadi.org)  
Jarrai gaitzazu:

